



GIZAPEDIA

gizapedia.hirusta.io

EKOIZPEN-AHALBIDEEN MUGA: ARIKETAK

Egilea: Josemari Sarasola

Dokumentua hemen eskura dezakezu:

<https://gizapedia.hirusta.io/ikasliburua-ekoizpen-ahalbideen-mugari-buruzko-ariketak/>

Eskubide guztiak egilearenak dira.

Ekoizpen-ahalbideen mugari buruzko ariketak


[1] Ekonomia batean zura eta garia soilik ekoitzi daitezke. Ekonomiaren lan baliabideak 4320 ordu dira. Tona bat zur ekoizteko 10 ordu behar dira, eta gehienez 144 tona gari ekoitzi daitezkeela uste da.

- (a) Ekoizpen-ahalbideen muga grafikoki nahiz analitikoki eman behar da.
- (b) Gariaren aukera-kostua eman zuraren terminoetan, eta azaldu horren esanahia.
- (c) $A : (zura = 132, garia = 100)$, $B : (zura = 140, garia = 150)$ eta $C : (zura = 180, garia = 60)$ ekoizpen-konbinazioak aztertu ekoizpen-ahalbideei buruz.

(a) Ekoizpen-ahalbideen mugako muturretan hau da egoera:

- $4320/10=432$ tona zur ekoitzi daitezke.
- 144 tona gari ekoitzi daitezke.

Grafikoki, bi mutur horiek zuzen batez lotzen dituen zuzena izango da ekoizpen-ahalbideen muga:



Analitikoki emateko nahikoa dugu $(x_1, y_1) : (432, 0)$ eta $(x_2, y_2) : (0, 144)$ puntuak hartuta zuzen baten ekuazioa ematen duen formula erabili:

$$y - y_1 = \frac{y_2 - y_1}{x_2 - x_1}(x - x_1)$$

$$y - 0 = \frac{144}{-432}(x - 432) \rightarrow G = 144 - 0,33Z$$

(b) Gariaren aukera-kostua zuraren terminoetan emateko, ekoizpen-ahalbideen mugaren adierazpena aldatu behar da, aldagai independentzat garia hartuz:


$$G = 144 - 0,33Z \rightarrow Z = \frac{144}{0,33} - \frac{1}{0,33}G = 432 - 3G$$

Beraz, aukera kostua hau izango da: gari tona gehigarri bat ekoizteko, 3 tona zur gutxiago ekoitzi behar dira.

Beste era batera:

$$AK_Z^G = \left| \frac{dZ}{dG} \right| = 3$$

(c)



$A(Z : 132, G : 100)$ konbinazioa efizientea da, zuraren ekoizpen horretarako, gariaren ekoizpena lor daitekeen handiena baita, ekoizpen-ahalbideen mugaren gainean dagoelako.

$B(Z : 140, G : 150)$ konbinazioa iritsezina da, zuraren ekoizpen horretarako, gariaren ekoizpen horretara ezin baita iritsi; izan ere, lor daitekeen gari ekoizpen handiena zur kantitate hori ekoitzita $144 - 0,33 \times 140 = 97,33$ tona da.

$C(Z : 180, G : 60)$ konbinazioa inefizientea da, zuraren ekoizpen horretarako, gari gehiago ekoiz daitekeelako ekoizpen-faktorea, laan alegia, efizienteki erabiliz. Zehatzago, lor daitekeen gari ekoizpena zur kantitate hori ekoitzita $144 - 0,33 \times 180 = 84$ tona da, konbinazioko balioa baino 24 tona gehiago.